

## JUARISTI, Felipe: *Itzarri nahi ez zuen printzesa.*

Alberdania argitaletxea, Irun, 2002

### Ainhoa AROZENA

Gazte literaturan aurkitu du bere lekua Felipe Juaristik, baina azkena argitaratu duen lanak, *Itzarri nahi ez zuen printzesak*, adin guztietako irakurleetzako gozagarri diren lanak idatz daitezkeela frogatzen du. *Beterriko Liburua* aldizkarirako elkarrizketan adierazi zueenez, "Halaxe atera zitzaidan eta nahikoa erraz gainera. Ez nuen nire burua batere behartu, ez nuen aurrez pentsatu lan errealista edo fantasiakoa idatziko nuen. Errealismoa aukeratu izan banu, ez lirateke lan horretako pertsonaia gehienak egongo. Ez dut esango errealismoa edo fantasia zein den hobea, baina bai batak zein besteak markatu egiten du".

Antzinako herrixka batera garamatza Juaristiren lanak; errege-erreginak, printze-printzesak nahiz mezulariak bizi ziren garaira. Herrixka txiki batean, bada gaztelu bat eta bertan lotan dagoen printzesa eder bat. Printzesa hori ipuin eder batekin esnatzen duenarentzat sari eder bat izango da, printzesarekin ezkondu ahal izatea, alegia. Herriko alkateak ez du aukera hori galdu nahi, printzesarekin ezkontzeaz gain, bertako errege izateko. Helburu hori lortze aldera, alkateak Joanes izeneko mezulari bat du bere gain. Mundu guztira zabaltzen da printzesari ipuinak kontatzeko deialdia eta lurralde ezberdinetatik iritsiko dira printzeak beren ipuinak kontatzera. Herrian jai giroa izaten da nagusi bisitariak etortzen diren bakoitzean. Joanesen bete-beharra printze horien ipuinak aurrez jakin eta istorio ederragoa osatzea da, gero alkateak printzesari konta diezaion. Kontua da, Joanes printzesarekin maiteminduta dagoela eta, inolaz ere, ez

diola alkateari aukera hori eskaini nahi. Tartean-tartean, Joanes printzesa ikustera gerturatzeko da gaztelura. Herrian badu, ordea, maite duen neska bat, Justina, tabernariaren alaba. Meska ere txora-txora eginda dabil Joanesekin, baina haserretu egiten da Joanesek printzesarekiko duen erakarpena ezagutzeko. Kanpoko printzei egindako ongi-etorri festa batean, Joanes printzesa ikustera itzuliko da gaztelura... Printzesa falta da! Ihes egin du bere ohetik! Joanesen eromena! Aurrerantzean, Justinak beteko du printzesaren ohea eta Joanes izango da bere loa esnatuko duena. Biak batera alde egingo dute gaztelutik, mendian barrena. Benetako printzesa Justina dela konturatuko da behingoan Joanes.

Liburuan kontatzen zaigun istorioa izugarri polita da eta darabilen hizkera poetikoa bikaina. Mundu zabaleko printzeek printzesari kontatzen dizkieten ipuinak ederrak dira, garaiko giroa ezin hobeto deskribatuta ageri da kontaketa bakoitzean. Errealismotik urrun, fantasiako mugetan barrena, amets egiteko tarte bat eskaintzen du liburuak. Literatura ezagutzeko beste bide bat... Bide erakargarria, zalantzarik gabe.